

BERMEO / Lehiaketa bat antolatu dute gazteek euskaraz irakurtzea bultzatzeko

GIZek antolatutako lehiaketan euskarazko bost libururi buruzko galderak erantzun beharko dira.

Natalila Salazar

Gazteek euskaraz irakurtzea bultzatzeko lehiaketa bat antolatu du Gazte Informazio Zerbitzuak (GIZ), Bermeoko Udaleko Euskara Sailarekin eta Udal Liburutegiarekin elkarlanean, Iñaki Lopez GIZeko teknikariak jakinarazi duenez. Haren esanetan, lehenengoz burutuko dute ekimen hori herrian, proba bezala.

Parte hartu nahi duenak antolatzaileek proposatutako bost liburu irakurri beharko ditu, eta ondoren, horiei buruz zabalduko dituzten bosna galderei erantzun beharko die.

16 eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako lehiaketa hasi da eta azaroaren 28an bukatuko da.

Liburuak eta galderak

Lehiaketan parte hartzen dutenek ' Hiltzailea nire baitan ', ' Seximenduz ', ' Karonte ', ' Durduzaz eta dardaraz ' eta ' Urtebete itsasargian ' liburuak irakurri beharko ditu. Liburu bakoitzari buruzko bost galdera erantzun beharko dira. Horietako lauren erantzunak liburutegian aurkituko dira, Lopezen arabera.

Bestalde, azaldu duenez, bosgarrena galdera irekia izango da eta irakurlearen iritzia da bilatuko duena.

Erantzun guztiak batera entregatu beharko dira Udal liburutegian edo GIZen, beti ere Gazteak Irakurtzen lehiaketarako dela zehaztuta, adierazi du. Bestalde, ' liburutegia@bermeo.org ' helbidera ere bidal daitezkeela azaldu du.

Erantzunekin batera, parte-hartzaileak bere izen-abizenak, helbidea, herria, telefonoa eta jaiotze data zehaztu beharko ditu.

Sari banaketa, abenduan

Lehiaketa azaroaren 28an bukatuta, abenduan egingo dute sari-banaketa, hil horren 15a eta 19a bitartean, oraingoz zehaztu gabe daukagu, esan du Lopezek.

Hiru sari emango dituzte. Lehenengoa, Luma liburudendan gastatzeko 150 euroko balea; bigarrena, toki bererako 100 euroko balea eta hirugarrena, 50 euroko balea.